

KRISIARI AURRE EGITEKO EZINBESTEKO URRATSAK

- ✓ Autonomoen bizitza-baldintzak duintzeko helburuz, pertsona baten bizitza profesionalean zehar Estatuari egindako diru-ekarpenak guztira zenbatekoak izan diren kontuan hartzeak legez araututa egon behar luke. Nondik ateratzen dira gizarte-zerbitzuak aurrera ateratzeko beharrezkoak diren diruak: zergetatik ateratzen dira, ezta? Eta nortzuk dira gizabanakoen artean, gizabanako gisa alegia, estatuari diru gehien ekartzen diotenak? Euren kasa lanean ari direnek, autonomoek, fakturen bidez lan egiten duten guztiek alegia. Aldiz, lan-baldintzarik kaxkarrenak dituztenak ez al dira langile autonomoenak? Horrek bukatu egin behar du. Erretiroa hartzeko orduan, Gizarte Segurantzari kotizatutako urteak kontuan hartzeaz gain, Estatuari eta Ogasun desberdinei egindako diru-ekarpenak ere kontuan hartzea exijitu behar da. Hori, gainera, lana sortzeko pizgarri handia izango litzateke eta jende asko animatuko luke autonomoaren bidea (autoenpleguaren bidea) hartzera, biderik errazena (funtzionarioa edo soldatapekoa izatea) aukeratu beharrean. Erretiroa hartzeko orduan, zergatik hartu behar dira kasu guztiak berdinak balira bezala? Adibidez, har ditzagun “A” eta “B”:
 - “A”k bere bizitza profesionalean estatuari eta ogasunari egin dion diru-ekarpena: 30.000 euro.
 - “B”k bere bizitza profesionalean estatuari eta ogasunari egin dion diru-ekarpena: 300.000 euro.“A” funtzionarioa izan da, edo nominapean lan egin du enpresa batean. “B”k, ordea, langile autonomoa izan da eta hogeita hamar urtez aritu da BEZA ordaintzen eta PFEZ ordaintzen. Hala eta guztiz ere, erretiroa hartzeko orduan, erabat azalgaitzak diren arrazoiengatik “A”ren erretiro-baldintzak “B”renak baino askoz hobeak dira (edo berdin-berdinak dira), eta gainera, “A”k bere bizitza profesionalean bestelako abantailak ere izan ditu: langabezian geldituz gero, bazuen kalte-ordaina kobratzea, langabezia-saria jasotzea, e.a., e.a. Politikariek autoenplegua sustatu nahi dutela diote, baina langile autonomoen lan-baldintzei erreparatu gabe. Hori bai zaila, hori!
- ✓ Krisiaren aurka egiteko, beharrezkoa da bizitzeko oinarrizkoak eta ezinbestekoak ditugun gauzak merketzea. Hori egiten ez bada, krisia ez dugu inoiz gaindituko. Arazoa ez da diru gutxi irabazten dugula; arazoa da bizitzeak dakartzkigun gastuak itzelak direla. Etxea eta jangaiak dira pertsona batek bizitzeko dituen beharrik handienak. Biak ala biak (eta bereziki lehena) ikaragarri garestiak dira eta horrek pikotara bidaltzen du krisitik ateratzeko egiten ditugun ahalegin oro. Bizitzearen garestitzea konpontzen ez den bitartean, krisi iraunkor eta etengabe batean bizi izango gara. Gehiago irabazteak ez digu ezertarako balioko, oinarrizko gastuetan ito egiten bagara. Hemen Euskadin familia askotan hilero-hilero 3.000 euro sartzen dira, baina hala ere ez dute lortzen euren kontu-korronteak modu saneatu batez edukitzea; soldatak oso handiak badira baina gastuak soldatak baino handiagoak badira, txakurraren putza, hi! Harrokeria handiz esan ahalko dugu: “Nik hilean 4.000 euro irabazten ditut”. Bai, baina hilean dituzun gastuak 4.200 eurokoak badira, laster Karitasera jo beharko duzu inozoen sopa eskatzera.

- ✓ Artifizialki sorrarazi ditugun premiak identifikatu eta baztertzen hasi beharra daukagu. Hori ere beste oinarritzko urrats bat da krisiari aurka egiteko. Gure kontsumo-gizarteak sorrarazi dituen sasi-balioak desmuntatu behar ditugu, banan-banan desmuntatu ere, eta benetako zorientasunean oinarrituriko balio berriak finkatu. Kontua ez datza batek gauza asko izatean, bat asko izatean baizik. Ulertzen?
- ✓ Gure gizarte-ereduan den beste gezur handi bat “hazkunde etengabea” da. Badirudi gauzak ondo ibiliko badira, herri bakoitza behartuta dagoela halako New York bat sortzera. Baina mito hori gure kapitalismo sukartiaren beste inozokeria handi bat baino ez da; hazkunde etengabeak krisialdi etengabera baino ez darama-eta. Ez digu axolarik eman behar gure hazkundera zenbatekoa den, axola eman behar digun gauza bakarra denontzat bizi-baldintza duinak izatea da, eta hori lortzeko ezinbestekoa dugu halako oreka bat lortzea biztanleriaren barruan gertatzen diren mugimenduen artean: gazteriaren eta heldueriaren, erretiroen, jaiotzen, heriotzen eta abarren artean... Hori da benetako bidea gizarte indartsu, osasuntsu eta harmoniatsu bat lortzeko. Etengabeko hazkundera aldarrikatzen dutenak badakigu denok nortzuk diren: lantegiak euren aberritik eramateko prest daudenak, urrutiko herrialde azpigaratueta “etengabeko hazkundeari” buruzko ohiko zerri-ametsei bide eman eta handik urte gutxira “munduko aberatsen zerrendan” azalduko diren berberak. Bi bide ditugu, lagunok: tximino handinahien bidea utzi eta gizaki duinaren bidea hartzea, ala, porlanezko oihaneko erregetza geure egin eta tximino handinahien pare bizitzen jarraitzea. Guk geuk.

✓